

**ezagutzen al duzu  
Donostia?**


**Landarbasoko  
kobak**

Landarbasoko kobak ospe handiko kobak dira. Donostia inguruan aurkitu daitezkeen ezagunetarikoa zalantzarik gabe. Hiru zulo hauek Oreretako Udal dermioari dagozkio administrazio aldetik, baina Donostia-koa den Landarbasoko barrendegiaren ia mugan daude eta hortik hartzen dute izena hain zuzen ere.

«Aitzbitarte» deitzen hasi ziren kultur-talde batzuk, agian Aizpitarte mendiaren azpikaldean kokatzen direlako, baina hori ez da zuzena, inguru honi Landarbaso deitzen baitzaio betidanik. Bada gainera Oreretan Landarbaso abesbatza inuduan zehar izen hau zabaltzen.

Donostia inguruko base-ri batean jaso dut istorio harrigarri hau: behin batean alhantz batek ihes egin omen zuen Larratz baserritik. Koban sartzen ikusi omen zuten eta handik hiru egunera Aranou azaldu omen zen; horregatik bada Landarbasoko kobak «Nafarroan ateratzen direla» sinesten duenik. Horrelako istorio harrigarri hauetaz aparte, egia zera da: Landarbaso izango dugu ziuraski, gu, donostiarron historiaurreko leku nagusia, bai kobak eta bai inguruko zortzi (!) trikuharrak frogatzen baitute antzin-antzinatik gure arbaso zaharrenak Landarbaso bizi izan zirela.

«Landarbasoko  
kobak Larratz  
baserriko bidetik  
ikusita»



«Landarbasoko  
Astabizkar  
baserria eta igoin  
mendiko  
ospelako hegia»

**Donostiako kantutegia**



J.I. ANSOENAK proposatua

**Neska zahar bati**

Neska zahar zinu bat  
badegu auzoan,  
igoalik ez duena  
Europa osoan.  
Nola ezkonduzkeko  
modurik ez zuan,  
lizundua aurkitzen da  
betiko zokoan.  
Traperoak eraman  
lezake zakuan!

Neskatxa, gizatarra,  
jenio estua,  
ez da behin ere izango  
ezertan prestua.  
Intentzio gehiegiz  
barrena hustua,  
pazientzia gutxi eta  
gainera gaiztoa.  
Hospital baterako  
ai, zer enplasto!

Carai bateko topikoa da neska eta mutil zaharrena. Eta bertsoetan maiz azaldu dira. Hauek 1883. urtean Pepe Artolak (1864 - 1929) jarri zituen. Pentsatzekoa da auzokoentzat ezaguna izango zela neska zahar hori eta zenbat far eta algara sortuko zuten bertso hauek haren lepo.